



Rosa María Aris y Mari Carmen Nogales, en el local que la OMIC tiene en la plaza del mercado. :: A. L.

## «Ójala aumentara la cifra de consultas y bajara la de reclamaciones»

**Rosa María Aris y Mari Carmen Nogales**  
Responsables de la OMIC de Ermua

El servicio de la Oficina de Información al Consumidor ermuarra cumple 20 años de vida en su local de los bajos de la plaza del mercado

:: AINHOA LASUEN

ERMUA. Son ya 20 años desde que se puso en marcha la Oficina Municipal del Consumidor, la OMIC, de Ermua y, es en estas fechas navideñas, en las que se consume más, en las que ellas aconsejan «preguntar antes de arrepentirse y no poder dar marcha atrás». No en vano, Rosa María Aris y Mari Carmen Nogales, responsables del servicio de la OMIC de Ermua, reciben en su oficina de la plaza del mercado unas 850 consultas y cerca de 290 reclamaciones al año, muy por encima de oficinas de municipios cercanos como Eibar (182) o Elgoibar (55).

–¿Un deseo para este año?

–Ójala aumentara el número de consultas y bajara el de reclamaciones. Eso querría decir que la gente se preocupaba de informarse antes de comprar y así se evitaban muchos problemas. Existen los derechos de los consumidores, pero también tienen ciertas obligaciones, por ejemplo la mayoría no sabe que los comerciantes no tienen por qué recoger un producto que esté en buen estado, porque no les valga o

no les guste, ni siquiera le tienen por qué dar un vale, no tienen obligación, a no ser que aparezca por escrito. ¡Ojo! Nosotras defendemos al consumidor, pero no podemos saltarnos la normativa.

–Siempre dando consejos, ¿no se han cansado en 20 años?

–Ni hablar. Precisamente comenzamos con una asociación, Ermaza, porque teníamos la inquietud de ayudar a la gente tanto consumidores como ciudadanos, porque queríamos que el pueblo funcionara mejor y además coincidió en el momento del aceite de colza y nos juntamos un grupo de vecinos para ver qué podíamos hacer.

–A aquella asociación también le interesaba el medio ambiente.

–Fíjate si interesaba, que entonces, que lo de reciclar sonaba a sueño, conseguimos una máquina vieja y grande de reciclaje de papel e hicimos el primer taller para escolares en los pasillos del Cinema.

–Ahora ¿qué otros temas tratan con los escolares?

**«El mejor consejo, pedir siempre el ticket, aunque se pague con tarjeta»**

–Cómo incide la publicidad en el consumo y fomentar un consumo responsable. Se aprende desde cómo se hace un yogur hasta a crear su propio juguete reciclado y, según asciende la edad, se informa sobre facturas de teléfono o sobre el tabaco, entre otros temas.

–¿Qué otros cambios ha habido?

–Antes la mayoría de las quejas eran por compras. Ahora las nuevas tecnologías y los móviles causan estragos. De hecho, el 85% de las quejas proviene de estos sectores. También la liberalización de los suministros de energía ha provocado que se estén generando muchas reclamaciones. Hay que solicitar todo por escrito y leer con calma la letra pequeña, porque nos bombardean con la publicidad y nos olvidamos de exigir garantías. Hay muchas trampas. Incluso ha habido altas en servicios telefónicos sin que la usuaria lo sepa, hasta que le llega la factura. Sólo tienen que saber tu DNI y tu nombre, pues como todo se lleva a cabo por teléfono. No hay que dar los datos a nadie.

–Además, los servicios de atención al cliente de estas empresas son sangrantes.

–Sí, porque te cuesta hablar con una persona y no con una máquina, porque te hacen esperar hasta 24 horas para atenderte, porque en alguno de los casos te dicen que hagas las gestiones por escrito. ¿Pero cómo se puede tener a una persona sin luz o gas durante una semana esperando a que tú me respondas por escrito? Son problemas por los que pasamos.

–Pero a ustedes les escuchan.

–Suele ser más sencillo, pero algunas veces también te encuentras que no puedes solucionar algo que sabes que está mal.

–Dennos un gran consejo.

–Pedir siempre el ticket, aunque paguemos con tarjeta.

–Difícil pero, díganme ¿cuál será el mayor problema dentro de otros 20 años?

–Las nuevas tecnologías seguirán dando problemas porque buscan la trampa y, aunque la legislación cambia, ellas van por delante.

## La Diputación saca a licitación las obras de la variante sur de Ermua

:: A. LASUEN

ERMUA. La Diputación de Vizcaya ha aprobado, a través de la empresa foral Interbiak, la licitación de las obras de construcción de la variante sur de Ermua por un importe de 90,4 millones de euros y un plazo de ejecución de 32 meses.

Según informó la Diputación, ésta es la primera de las siete nuevas carreteras radiales que sale a concurso para su construcción. La variante de Ermua está dividida en dos tramos, uno al oeste de la localidad y otro al sur, el que sale ahora a concurso.

Este tramo sur comienza en el término municipal de Ermua, en la carretera N-634 que proviene de Areitio, con la ejecución de una nueva glorieta. Cruzará después hacia el sureste el monte Ureta mediante el túnel denominado Uretamendi, de 589 metros, y discurrirá a cielo abierto por la vaguada del arroyo Beko en paralelo a la A-8 hasta conectar con la futura rotonda de San Lorenzo, que forma parte de la variante de Eibar, que actualmente construye la Diputación de Guipúzcoa con la participación financiera de la Diputación de Vizcaya.

La construcción de esta variante, según explicaron los responsables forales, conlleva la realización de un nuevo enlace completo con la autopista A-8.

Los trabajos que se licitan ahora son, en concreto, la construcción del nuevo enlace de Ermua y área de cobro, incluyendo la ampliación a tres carriles de la AP-8, mejora de trazado de la AP-8 en el ámbito del actual peaje y desmantelamiento del mismo, viales en la vaguada del arroyo Beko, variante de la línea férrea Bilbao-San Sebastián, túneles de Uretamendi, preparación y acondicionamiento de los caminos de acceso y rellenos de Uretamendi norte y sur, viaducto y viales en la vaguada del arroyo Urtia y ampliación y restauración del relleno de Oterre.

### Nuevas carreteras

La Diputación explicó que las nuevas carreteras radiales de Vizcaya se elevan a siete: Urberuaga-Berriatua, Gerendiaga-Elorrio, Boroa-Igorre, Amorebieta Etxano-Muxika, Mungia-Bermeo, Variante de Bermeo y variante de Ermua. Los proyectos consisten, básicamente, en la ampliación, mejora o desdoblamiento de los trazados actuales.

La construcción de estas carreteras permitirá dotar a todas las comarcas de Vizcaya de infraestructuras de comunicación viaria de «alta capacidad y calidad», mejorar la competitividad de las empresas y la actividad económica, y facilitar el acceso de los ciudadanos a los centros de trabajo, de comercio, culturales y de ocio.



Uno de los túneles pasará bajo la explanada de Betiondo. :: A. L.

### EN BREVE

#### El belén no desaparece de forma definitiva

PLAZA DEL MERCADO

El belén de la plaza del mercado no desaparece definitivamente. Si bien durante esta Navidad no se ha instalado el tradicional conjunto de 30 metros cuadrados que habitualmente adornaba el mercado, la Asociación de Comerciantes de este lugar advierte que «ha sido por motivo del 25 aniversario de la plaza, las actividades y

las obras que ello conlleva y que el presupuesto para instalarlo era muy alto y hemos considerado que no es el momento de realizar esta inversión». No obstante las figuras y adornos del belén continúan almacenados por lo que «se instalará en próximos años», según explican los comerciantes, que son los que se han encargado durante más de una década de su instalación. Como representación simbólica este año se ha instalado el nacimiento junto al árbol.

# Ziriako Ortiz de Zarate

## «Askok pentsatzen duten arren, herri kirolak bertan behera ez dira geratuko»

*Herri kirolak aitzakia hartuta, Euskal Herriko herri eta auzo ugaritan ibilia da, eta dabil oraindik ere, Ziriako Ortiz de Zarate. Askok ezagutuko dute haren ahotsa, plazetatik ez bada, Arrate Irratian herri kirolei buruz egiten duen saiotik. 82 urte izanagatik ere, erretiratzeko egunik ez duela jarri dio.*

### Lierni Alkorta

Herri kirola eta irratia. Bi jardue-  
ra horiek laburbil dezakete Ziriako Ortiz de Zarateren (Eibar, Gipuzkoa, 1928) bizitza. Horiez gain, ordea, 1936ko gerrak ere markatu du haren bizitza.

**G Gipuzkoan jaioa izanagatik, Bizkaian hazia zarela esan daiteke. Nola lako haurtzaroa izan zenuen?**

**E** Lau urte nituela Ermura etorri ginen bizitzera. Handik lau urtera, gerra zikin zibil hori agertu zen, eta alde egin behar izan genuen ama zenaren baserrira, Abadiñora. Han egin genuen geldialdi handi bat. Gero Abadiñotik irten, Gernika aldera, Gernikako bonbardaketa, Bilbokoa, Durangokoa... Aita zena eta anaia nagusia gerratean aurrera joanak ziren.

Hiru anai-arreba gazteenak eta ama zena, Kantabrian harrapatu gintuzten frankistek. Eta gu bezala gipuzkoar asko, eta bizkaitar asko. Etorri ziren Solaresera hegazkin mordo bat bonbak botatzera. Hango heriotza. Heldu ginen Santanderrera, eta nora joanik ez. Han zen negarra, han zen ihesa. Eta galdu egin nintzen. Zortzi urteko mutikotxo, han egon nintzen hiru egunean. Akordatzen naiz oraindik: iturritik ura edan eta negar egin, iturritik ura edan eta negar egin. Halako baten han etorri zitzaizkidan Ermuko bi aitona, eta hartu ninduten. Iluntze aldera arte haiekin ibili, eta, hara non agertu ziren ama eta senideak, nire bila ibiliak.

**G Noiz itzuli zineten osterera ere Ermura?**

**E** Ermura itzuli ginen, Santanderren frankistak sartu baitziren. Eta Ermuan, gure etxean beste batzuk zeuden bizi izaten. Horre-

lakoak asko gertatu ziren hemen. Joan gineno kundu etxeak, eta isilik egon behar gainera. Anaia, gerran. Aita, gerran, eta dirua non irabazirik ez. Inolako aukerarik ez, eta ama zena gaixotu. Nola ez zen ba gaixotuko! Gero, amaren heriotza ere etorri zen, dena alde batera, dena txarto. Izebak hartu ninduen ni. Ermuko baserri batean hartu ninduten gero, bai familia ona bilatu ere.

**G Zortzi urteko ume batengan nola eragiten du gerra bizitzeak?**

**E** Pena handia sortzen du. Orain ere gauzak irakurtzea gustatzen zait, baina gerra kontuekin negargura etortzen zait. Gerratean asko sufritu nuen, asko. Gerra nahi du gerra ezagutu ez duenak, baina gerra ezagutu duenak gerra entzuterik ere ez du nahi. Gerra baino txarragorik ez dago. Senideak elkar hiltzen. Zertarako? Gure Jaungoikoa nahikoa da denak hiltzeko. Gerra denontzako kaltegarria da.

Gerra gauza txarra da. Familia ona topatu nuen, eta oraindik ere familia bezala segitzen dut, baina zortzi urtetik aurrera aitarik eta amarik gabe Gabonak pasatzea gogorra da. Oraintxe, Gabon jaietan-eta, horiek akordatu beti egiten dira: beti. Askok esaten dute gauza horiek ahaztu egin behar direla. Pixka bat sufrituta barruan eduki bai, baina ahaztu ez.

**G Baserri horretan hartu zintuzten, Ermuan bertan. Gaztaroan, baserriko lanetan jarraitu zenuen?**

**E** Baserri hartan lan egin nuen soldadu joan arte. Soldadu joan nintzen, eta hantxe eduki nuen zortea! Instrukzioa egin, eta mendi gailurretik jaitsi eta bizpahiru egunera jokatzeko zuten Unamuno eta Gallastegik Atano anaien

aurka, Logroñon, gu ginen lekuan, eta joan egin nintzen. Migel Gallastegi ni hazi nintzen baserria baino beheraxeago jaioa zen, eta kantxara irten zenean ikusi, eta soldaduskan han nengoela esan nionean, koronelarekin —Luis Etxeberri jauna, Gallastegiren komandante izandakoa— hitz egiteko prest agertu zen. Hurrengo goizean han azaldu zen kuartelean, eta joan ginen koronelarengana. Hasi ziren berba egiten eta nire historia kontatu, eta hilabeterako etxera eraman nahi ninduela esan zion. Baiezkoa eman zuen, eta itzultzen nintzenez berriz koronelarengana berarengana joateko esan zidan. Berrero ez nuen nik soldaduskako arroparik jantzi. Handik aurrera, hilabete han eta hilabete etxean.

*«Horrelakoak asko gertatu ziren hemen. Joan gineno kundu etxeak, eta isilik egon behar gainera»*

*«Gerra nahi du hura ezagutu ez duenak, baina ezagutu duenak entzuterik ere ez du nahi»*

**G Herri kirolak eta irratia. Zer zaleztasun sortu zitzaizun lehenago?**

**E** Herri kirolena! Nik ez nuen pentsatzen, duela 30 urtera arte, irratian berba egingo nuenik, eta irratian izango nintzenik. Baina kirolean, herri kirolean eta pilotan, joan den 60 urtean nabil.

Ermuan herri kirolean laguntzen-eta beti ibiltzen nintzen, eta kanpoko ermitetan ere bai. Norbaitek egin behar ditu lan horiek ere herrian, eta! Kanpoko herrietara joateko ere deitzen ninduten. Herri kirolak asko maitatzen ditut, eta hementxe Ermuan hartu nuen afizioa.

**G Gogoan al duzu mikrofonoa hartu zenuen lehen eguna?**

**E** Lehenengoz, mikroa hementxe hartu nuen, Ermuan. Franco-ren azken urteak ziren, baina, hemen jaialdi eder bat antolatu zuten gau batean. Bertsolariak, Amuriza eta Azpillaga; eta trikitalariak, Laja eta Landakanda. Eta harrezkero, Landakandak zenbat bider esan zidan: «Ziriako, tortillari baino buelta ederragoa eman zenion zuk jaialdiari!». Izan ere, bertsolariak bertsotan ari zirela, jendea berrikerian ari zen, bertsoa ez baitzuen apreziatzen kanpoko jende honek. Eta ondoren zeuden, tresnak prestatuta, Laja eta Landakanda. Baina, kentzeko asmotan ikusi nituen. Eta esan zidaten: «Hemen dagoen giroarekin kentzera goaz». Esan nien: «Ez, sufritzen nago ni ere. Sekula mikro batetik ez dut berba egin, baina gaur egin behar dut». Hartu nuen mikroa eta esan nuen, gaztelaraz: «Publiko errespetagarria, guretzat, euskaldunontzat, agertoki batera ikasitakoa kantatzera ateratzen denak adina meritu edo gehiago du bertsolariak. Zuek ez duzue ulertzen, eta barkatu mintzen bazaituztet, baina eskertuko nizueke jaialdia amaitu arte isilik egongo bazinete». Jendea isilik geratu zen, elizan bezala. Handik aurrera hura zen txaloa jotzea.

**G Arrate irratian, berriz, hainbat urte geroago hasizinen.**

**E** Oraintxe 30 urte, On Pedro apaizak, Arrateko apaizak, deitu zidan: «Ziriako: Fragak betiko itxi zuelakoan emisora, baina zabaldu dugu ba, eta etorri egin behar duzu! Antzinako abestiak-eta asko dakizkizu, eta, zuk kantatu, eta nik grabatu egingo ditut». «Egingo ote dugu, ba, On Pedro»,



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

erantzun nion. Eta berak: «Bai, bai. Ziriako etorri mesedez, zu baino hoberik ez dago eta». Baiezkoa eman nion, eta joan nintzen, San Jose egun batean. Kantatu genituen antzinako Sabino Aranaren kantu batzuk, *Gernikako Arbola*, eta Basarri eta Uztapideri ikasitako bertso batzuk eta... «Beno, orain hemen jarraitu behar duzu, kantatzen eta herri kirolak, eta azoketako prezioak eta salneurriak ematen ere bai». Eta 30 urte! Atzo edo herenegun zela-koan, eta 30 urtean hor nabil.

**G Herriz herri asko ibilia zara. Inoiz zenbatu al duzu zenbat plazatan izan zaren herri kirolak aurkezten?**

**E** Esango nuke, Bizkaian eta Gipuzkoan herririk ez dela egongo ni hizlari egon gabekorik. Harri-jasotzaileak direla, aizkolariak direla, trontzalariak, idi probak, edo zaldi, mando edo astoak direla... Bizkaian eta Gipuzkoan herririk ez dago. Ermitak ere, gutxi egongo dira ni egon gabekoak. Araban ere dezente ibili naiz. Eta Nafarroan ere toki askotan.

**G Egunero zer bait, beraz?**

**E** Hiru jaialdi egindako egunak ere asko izan ditut. Bi, sarritan, eta, sasoi batean, egunero bat behintzat bai. Bazter guztietara, gau eta egun. Orain, laurogeitaka urte ditut eta, kotxearekin-eta



## Motzean

- 1 **1936ko gerra.** Tristura beti. Beti aita zenarekin eta beste askorekin akordatzen naiz.
- 2 **Eibar.** Eibarrek gauza asko ekartzen dizkit burura. Baina, Eibar, lehen zen Eibar. Orain aldatu egin da asko. Eibar izan da herri langile bat, eta euskarari ere Eibarrek eutsi zion. Gerra Zibilean ere euskaraz egiten zen.
- 3 **Ermua.** Ermua pixka bat diferentxeagoa da, eta bi kilometroren alde bakarrik dago! Ermuan lagun onak asko izan ditut, baina beste-lakoak ere bat edo bi bail.
- 4 **Herri kirol kutunena.** Herri kirolak ikusmolde onekoak asko dira, baina niretzat, gogokoena: harri jasotzea, 150 bat kiloko harriarekin, hiru txanda egitea, hamar minutukoak. Lehen, apustuak asko izaten ziren horrelakoak, eta gustura ikustekoa da.
- 5 **Herri kirolari kutunena.** Maiteak asko eta asko ditut nik, baina bat alpatzeko, denen gainetik: *Markinako lehoia*. Anton Totorikaguena. Harri jasotze alorrean, berriz, Aimar [Irigoién], Errezilgoa.
- 6 **Plazarik kutunena.** Abadiñoako probatokia. Nik ipini nion hari izena: Katedrala.

pixka bat beldurtu egiten naiz. Eta, apur bat, gauez ibiltzeari eta laga diot. Baina, ibili, asko ibili naiz ni. Nik egin dudana handiena, neure ustez, egun batean hiru jaialditan izatea. Egina nago, lehenengo Gasteizen, gero, Urnietan, eta gero Ispasterren. Jaialdi guztietan ongi ez nintzen egongo, baina denekoak estimatzen ditut, eta, gainera, uste dut gehienek ontzat hartu nautela, eta orain ere dei asko dauzkat. Orain ezezko batzuk ematen hasi naiz. Eman beharra: bihar-etzi dena laga beharko dut. Bizitzako legea da hau. Eta kargarik handiena; urteak.

**G Nola moldatzen zinen erritmo horretan, lanera ere joateko?**

**E** 44 urte egin nituen lantoki berean. Nagusiak bi anaia ziren, eta nirekin oso ongi portatu ziren. Niri Mallabian omenaldia egin zidatenean, nagusia etorri zen mikro- ra, neure ondora, eskua altxa zidan, eta esan zuen: «Ziriako duk nire bigarren semea. Berrogeitaka urtean nirekin lanean aritua». Eduki genituen geure eztabaidak, geure borrokalditxoak ere bai, baina beti biok lanerako gerturik, elkarri laguntzeko gerturik. Bihotzak ere buelta eman zidan, taillerreko nagusiak hori esatean.

**G Hainbeste urtean herri kirolen munduan ibilita, pentsatzekoa da**

**aldaketa handia antzemango zenuela esparru horretan.**

**E** Herri kirolean aldaketa asko egon da, gainerako kirolean egon den bezala. Gizonak lehen ere indartsuak eta abildade handikoak ziren, baina orain ere bai. Eta gero ere izango dira. Orain askok esaten dute: «Lehenengoak ala oraingoak indartsuagoak?». Ho-

**«Bizkaian eta Gipuzkoan herririk ez da izango ni herri kirolean hizlari egon gabekorik»**

**«Arratek, asko eman dit niri. Lagun asko eman dizkit, eta egun ikaragarri onak pasatzea»**

rix egin esan. Lehen harria jasotzen, onak ere asko ziren, baina erdizkakoak ere asko. Orduan ere, baziren harri dezenteak altxatzen zituztenak, baina 200 kilotik gorakoak altxatzen zituztenak gutxi ziren. Hala, Mieltxo Saralegi oraindik hor dago 329

kiloko errekorrekin. Eta hori dena zerk ekarri du? Nire ustez, janari hobeak, gertaketa hobeak, sendagileak ondoan edukitzeak, masajistek... Gizon indartsuak lehen baziren, eta orain ere bai, eta gero ere izango dira.

**G Erreleborik izango al da?**

**E** Gazteak asko datoz. Behar dena da, gogotsu etorri eta jarraitzea. Gertaketa horrek abantailatzen ditu. Aizkolariak eta herri kirol guztiak horrek abantailatzen ditu. Lana egiteak, gertaketak eta zaintzeak ere bai.

**G Publikoaren aldetik, aldaketarik izan da denbora honetan guztian?**

**E** Bai, publikoa denean aldatu da. Gehien-gehien, pilota partidetan. Horretan, uste dut, herri arteko txapelketek eragin dutela. Gu sasoiko ginenean, pilotaleku batean pankarta bat ikustea pentsatu ere ez zen egiten, eta gaur... Lehen pilotariak tanto on bat egiten zuenean, txapelak pilotalekura botatzen zituztenak baziren. Orain horrelakorik ez da ikusten.

**G Herri kirolen munduan ia denak ezagutuko dituzu, eta ia denek ezagutuko zaituzte zu.**

**E** Ezagutu, denak ezagutzen ditut herri kirolean dabilzanak. Eta eurek ere denek ezagutzen naute, ni. Hartu-emanak? Batzuk lagun ikaragarri handiak ditut.

Lagun txarrik ez daukat, inorekin ez daukat arazorik. Baina, *que hay* esanda aurrera pasatze-koak ere banaka bat bai. Agurtu gabe neuk inor ez dut lagatzen.

**G Zer moduzko etorkizuna ikusten diezu herri kirolei?**

**E** Denerakoa. Toki askotan herri kirolak gehitu egin dira, beste batzuetan gutxitu. Krisia? Bai, krisia egongo da, baina krisiaren aitzakiarekin herri kirol asko jaitsi dira. Lehen udaletxeetan zegoela dirua esaten zuten, eta orain ez dagoela dirurik. Baina nik uste dut udaletxeetan eta banketxeetan egongo dela dirua. Herri kirolei lagundu egin behar zaie pixka bat. Herri kirolek laguntzarik ez badute, behera etorriko dira; baina gastatu ez, e! Askok pentsatzen duten arren, herri kirolak bertan behera ez dira geratuko.

**G 82 urte dituzu. Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu irratian eta herri kirolen munduan?**

**E** Oraindik egunik eta urterik nik ere ez dut ipini. Oraintxe egin didate ebakuntza txiki bat begietatik, eta ikusmena lehengora ekarri didate. Gidatzen ere neure ustez ongi nabil, egunkaria ere betaurreko gabe dezente irakurtzen dut, eta ondo. Maiatzera arte daukat gidatzeko baimena, eta orduantxe lagatzeko asmotan

nengoen. Eta non esaten didan begietako ebakuntza egin didanak, segitzeko, hainbeste kilometro ez egiteko, baina jarraitzeko. Horrexek poztu nau berriro, eta oraindik ez dut datarik, egunik eta urterik jarri noiz laga behar dudana. Espero nuen aurten, gaztelaraz esaten den bezala: *Año nuevo, vida nueva*. Oraintxe urteberrietan agurra emateko asmotan nengoen, sorpresa modura, baina orain, hori esan didatene-tik, jarraitzea erabaki dut.

**G 30 urte daramatzazu Arrate Irratian. Zer eman dizu han lan egiteak?**

**E** Arratek, asko eman dit niri. Lagun asko eman dizkit. Egundikaragarri onak pasatzea, eta Euskal Herria ongiezagutzea. Hori dena, eta zerbait gehiago eman dit niri Arratek. Eta Arrateren bidez, herri kirolean hiru aldiz Kanaria uharterean egoteko aukera izan dut. Arrate asko maitatzen dut. 30 urtean hortxe, gustura ni, eta eurak ere uste dut baietz. Noiz arte segituko dudana? Horixe ezin dizut esan, baina luzaro izango ez dena bai, zeren urte asko dauzkat, eta nekatua nago. Baina neu gustura beti, hori bai, ibilera txar asko eginda, e!. Sasoiaren denak egiten dira, eta nik tratatu txar asko eman diot neure buruari. Baina, penarik ez daukat.